

• BEGI ERTZETIK

3

• **Claude Nori** **Miarritzeko jaialdiko arduraduna**

«Aurtengoa da buruan dugun jaialdiaren benetako isla»

Duela bi urteko maiatzean aurkeztu zuen lehen aldiz Miarritze Irudien Lurraldea jaialdia argazkilari honek. Ordutik, bidaiarekin lotu du argazkilaritza. Donostiako San Telmo Museoa harrapatu dugu, Jean Dieuzaideren argazkilari ibilbidearen inguruko atzera begirakoa prestatzen.

• **Jaialdiaren hirugarren urtea da datorren astean abian jarriko dena. Geo aldizkariaren erakusketa ikusgarri batekin hasi zineten. Nola eutsi hain indartsu hasi zen jaialdiari?** Lehen urtekoa, berez, ez zen benetako jaialdia izan, Geo-ren 20. urteurrena baizik. Bigarren ekitaldia, iazkoa, Bellevuetik kanpo jaialdi bat ibil zitekeela baieztatzea etorri zen. Zubi bat izan zen nolabait. Aurtengoa da nik buruan dudan formularen benetako isla: Miarritzen daude erakusketa gehienak, gune diferenteetan; eta Euskal Herriko beste leku batzuetara eraman ditugu gainera erakusketa batzuk, Donostia-ra eta Donibane-Garazira. Jaialdiaren ametsa Euskal Herrian Argazkilaritza Maiatz bat egitea da, irudiaren festa bat.

• **Argazkilaritza plazaratzen duzue, bidaiari lotua betiere. Abiapuntu horrekin jarraitzekotan al zarete?** Bai. Kontzeptualki oso gai interesgarria delako. Horrela, argazkilaritza hutsa ez den auzi bat lantzen ahal da, bidaia, filosofia, politika, jendearen arazoak. Bidean ibiltzea gai interesgarria iruditu zitzaidan. Udaberria delako, bideak garrantzi handia duen herri batean bizi garelako, arrazoi askorengatik. Argazkilaria bidaia, gainera, pertsonala, poetikoa, filosofikoa eta existentziala da oso. Gainera, gaur egun oso modan dago ibiltzea.

• **Aurten lau euskal argazkilariren lanak izango dira ikusgai.** Bai. Graciela Iturbide mexikarra ere badago, euskaldun jatorrikoa. Hego Amerikako argazkilari onenetako bat da gaur egun. Veronique Durrutyren argazkiak ere badira. Gainera, Euskal Herria gai hartuta kanpoko argazkilari zenbaiten eginko lanak ere erakutsiko dira. Aurten oso garrantzitsua zen guretzat Euskal Herriatik abiatzen den bidaia-jaialdi bat antolatzea.

• **Zuen helburuetako bat Euskal Herrian argazkilaritza sare bat osatzea izan da hastapenetatik. Nola dago kontu hori?** Aurten Elgoibarko [Gipuzkoa] Ongarri elkartekoekin antolatu dugu *Gaur egungo euskal argazkilaritza* erakusketa. Bide hori zabaltzen joan nahi dugu. Ez bakarrik jaialdirako. Proiektu komunak abian jartzeko aukera ere landu beharra dago.

• **Hau dena antolatzeko norainoko laguntzak dituzue?** Beno, hiruzpalau lagun gara. Ez dugu gauza handirik, baina hauteskundeak irabazi berri dituen auzapezak bere programan idatzi zuen Miarritzen Argazkilaritza Etxe bat bultzatuko zuela. Fototeka, mediateka, erakusketa, liburutegia... antola daitezke behin hori landuta. Baita Euskal Herriko sare hori bultzatu ere.

• **Erakusketez gain, badira ekitaldi paraleloak. Zer garrantzi dute horiek zuentzat?** Handia, jende asko datorrelako hitz egitera bere lanari, materialeri eta teknikei buruz. Agentzia bidezko turista ikuspegia gaintitzen duen bidaia filosofia bat ere hizpide izango dugu. Desberdina dena ulertzeko saio batetik abiatzen da filosofia hori, eta abiapuntu hori oso garrantzitsua da guretzat, bidaiarik onenak horiek baitira.

maiatzaren 5a eta 8a artean. Eric Valliren *Himalaya* ikusi ahal izango da, adibidez, datorren larunbatean Miarritzeko Koliseo aretoan, 18:00etan eta 21:30ean. Biharamunean, Arte kateak ekoiztutako *Voyages*. *Voyages* dokumental sorta eskainiko dute Bellevuen 21:30ean. Jaialdia ofizialki amaitzeko, berriz, *L'Europe du sud contemporaine* (Bernard Plossu) filmaren mundu maila-



EDURNE KOCH

Atzera begirakoa, David Damoisonen *Festak eta erritualak Pirinio Atlantikoetan*, Karine Saportaren *Antigua ulukari eta gozoa*, Scarlett Cotenaren *Marahab*, François Perri eta Jean-Philippe Auxemeryren *Haurrek poto batean sartzen dute euren mundua*, Hoa-Qui agentziako argazkilari zenbaiten lanekin osaturiko *Bidaien bihotzean*, Richard Gereren *Erromes eta 2000. urteko onenak* —argazki agentzia eta aldizkariak iaz bidaia argazkilaritza arloan eginiko lanik onenak—.

Santa Eugenia elizako kriptan, berriz, Emmanuel Bove-ten *Funanbuloa*, bidaia bat *Santiagora* ikusi ahal izango da.

Gune nagusitik landa

Miarritzetik kanpo, berriz, bi gune izango ditu argazkilaritza jaialdiak. Donostian, asteartean zabalduko zaizkio San Telmo Museoko ateak Jean Dieuzaideren *Atzera begirakoa* erakusketari. Dieuzaide gaskoia lanean jarraitzen duten Europako argazkilari preziatuenetako bat da gaur egun, eta Donostian ikusi ahal izango dena haren lanekin inoiz egin den erakusketarik zabalena da: 300dik gora lan eta hainbat bidaietan biltzen joan den hainbat objektu.

Asteartean bertan, Donibane-Garaziko Apezpikuen Kartzelan Alfred Yaghobzadeh-en (Sipa Press agentzia) *Kristautasuna munduan zehar* erakusketa zabalduko dute. *Geo* aldizkariaren eskutik etorri da erakusketa hori Donibane-Garazira.

Ekitaldi paraleloak

Argazki erakusketak ez dira, ordea, Miarritze Irudien Lurraldea jaialdiko ardatz bakarra. Argazkilari eta argazkizaleentzako topagunea eskaintzea helburu garrantzitsu bat da, eta, hori lortzeko, film emanaldiak, mahai inguruak, mintegi praktikoa eta hitzaldiak egingo dira

Zinez harritu ninduen lehen biderrez ikusi nuenean. Iragarkia ongi egina zegoen. Hogeigarren izateko, egokia zen karakterizazioa, bazuen intriga amini bat, eta areago, nahi zuenarentzat, eta musika lagungarri, keinu ere egiten zion film ezagun bati. Nola esan, iragarkiaren funtzioetako bat ikuslea kosta ahala kosta besaulkian lotzea zela azaldu zidatenetik, ikaragarri ondo lortua zela ulertu nuen. Baina ezustean EiTbren orria erakusten zuen ordenadore pantailaren aurrean indigena amazoniarrak diruditenak euskal teknikak liluratutik,

Iñigo Aranbarri
IDAZLEA

EiTbren misioa

hipnotizaturik ikusi nituenean, esan dizuet, lozorrotik iratzarri zen barnean daramadan animalia petral hau. Segurenik, azken-azkenean irudiei gehitu zitzaion 'Honaino iritsi gara' esloganak piztu zion orroa, eta horregatik neuk ere ez nion zarata handirik atera isil zedin eskatzeko. Arrazoi zuen.

Gehienetan ez bezala, nire barneko piztia petralak arrazoi zuen, eta poztu egin nintzen.

Gerora, publizitatearen mirabe zintzo naizen aldetik, arretaz jarraitu dut EiTbren munduaren jabetza iragartzen duen espota. Indioena ez zen serie baten hasiera besterik. Bigarrenagoan, amazoniar arriskutsuak (bai, bai... geziekin!) New Yorkeko etxe orratz dirdiratsuen artean Euskal Herrira konektaturik dagoen emakume broker bilakatu dira. Hirugarren batean, Paris munduan eta urrun dagoela ikasi dut. Amazonian aldean, misioa, ordea, beste bat da hauetan. Horra EiTbK orain arte globalizazioaren munduan nor badela erakusteko sortu edota norbait erosi dion marketin trilogia ederra.

Piztia oka hasteko arrazoiak zein izan ziren, ez da soka motza. Erantsi norberak bere espainoltasunetik, historiaren jabetzatik, Agirrerengandik, Blas de Lezorengandik eta Juan de Garairengandik. Erantsi hizkuntza gutxituen arteko sinpatiatik, erantsi aitakortasunetik, Benettonen eskolatik (Sudango emakumeak 'Bertatik bertara'-ri beha klitoria erauzten dioten bitartean?). Erantsi hemendik, hortik, handik, edonondik...

Eta arrazoiak eransten eta eransten segituko nukeen baldin eta Tarsoko Saulok bezala, baldin eta 'The Mission'-en bezala, Mendoza kapitainak-Robert de Nirok jesuiten misioetan legez ez banu argia garaiz ikusi. Iragarkiak artean fresko daudelarik, Espainiako Erregeri oldartu zaizkio zenbait kataluniar eta euskal abertzale zergatik eta Cervantes sariaren karietara gaztelera «ez zela inposatu» aldarrikatu duelako. Biharamunean Erret Etxeak emandako azalpenak baretu ditu denak: «kontestutik kanpo atera dira hitzok, ez zen Espainiaz ari».

Hala da, bere garaiazen mozkin da espota. Bortxatuak ere bere egin duen ideologia nagusi baten iragarle. Eta nire barnean daramadan piztia petralak hurrengo batean ez dela honelako txorakeria batengatik asaldatuko zin egin dit. Pixkanaka-pixkanaka, ohitzen ari da bera ere.